

# UPV/EHUko BARNE EBALUATZAILEEN PRESTAKUNTZA TAILERRA (2023ko martxoa)

**ECTS kreditu kop.: 1**

## **Norentzat**

Ikastegien kalitatea ebaluatzeko barne sistemen (KBBS) ebaluatzaile izan nahi duten ikasle, IRI eta AZPkoentzat. Ikastaroa egiten dutenak KEIZen Ebaluatzaileen Bankura pasatuko dira.

Ebaluazio oso baten praktika egingo dugu. Beraz, ezinbestekoa izango da ikastaroko saio guztietara joatea eta ariketa guztiak egitea.

## **Sarrera / Ikastaroaren deskribapena**

Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak (KEIZ) aholku eta laguntza teknikoak ematen die UPV/EHUko ikastegiei kudeaketa tresnak eta ebaluazio programak diseinatu, garatu eta inplementatzeko.

KEIZek eskaintzen dituen zerbitzu berrietako bat da ikastegien kalitatea bermatzeko barne sistemen (KBBS) barne ebaluazioa. Zerbitzu honi esker, ikastegiari kanpoko ikuspegi bat ematen zaio, UPV/EHUko beste ikastegi batzuetako ebaluatzaileek KBBSen gainean duten ezagutzatik.

Tailer hau esperientziaren bidezko ikaskuntzan oinarrituko da: parte hartzaileek ebaluazio simulatu bat egingo dute ikasteko nola egiten den UPV/EHUko ikastegi baten barne ebaluazioa.

Parte hartzaileek barne ebaluatzailearen rola hartuko dute. Batetik, banaka lan eginez, analisi ariketa bat egingo dute, indarguneak eta hobekuntza arloak antzemateko, eta, bestetik bateratze lana egingo dute taldean. Horrela, ebaluatzaile lanaren alderdi garrantzitsuenak landuko dituzte praktikan eta sor litezkeen arazoak aztertuko dituzte.

Parte hartzaileek tailerreko irakasleen laguntza izango dute ariketak egiteko.

Parte hartzaileak KEIZeko Ebaluatzaileen Bankura pasatuko dira, dagoeneko bertan ez badaude.

## **Ikastaroan landuko diren gaitasunak**

1. Ezagutzea UPV/EHUko ebaluazio eredua eta irizpideak eta UPV/EHUko barne ebaluazioa egiteko prozesua. Kontzeptu horietan sakontzea.
2. Indarguneak eta hobekuntza arloak antzematea, protokoloan ezarritako irizpideen arabera.
3. Sinplifikaziorako, erabakiak hartzeko eta adostasuna lortzeko estrategiak aplikatzea barne ebaluazio txosten bateratu bat egiteko.
4. Idazteko estilo eraikitzailea, konpletoa eta zehatza garatzea, ebidentzien analisian oinarritua eta aztertutako sistema hobetzea xede duena.

## Gaiak (Barne Ebaluaziorako Protokoloa 2022)

Barne ebaluazioaren testuingurua eta helburua.

2022ko barne ebaluaziorako erreferentzia eredu (ESG irizpideak).

Barne ebaluazioaren faseak.

Ebaluatzailearen rola: jarraibideak Antolaketa eta jokabide kodea, aurretiko gainbegirada dokumentazioari, bateratze lanerako bilera.

Ebaluazio bisita prestatzea eta egitea.

Amaierako Txostena: nondik norakoak eta idazteko irizpideak.

## Atzak

Gaitasun espezifikoak	Ataza mota	Ikaslearen denbora
1	- Lehen prestakuntza saioaren aurretiko autoprestakuntza eta autoebaluazio testa	6 ordu norbere kabuz
1	- On line saioa	Zuzeneko bi ordu on line
2	- Banakako ariketa: dokumentazioa aztertzea eta indarguneak eta hobekuntza arloak antzematea	10 ordu norbere kabuz
1, 2 eta 4	- Banakako ariketa: lantaldeko kideek antzemandako indarguneak eta hobekuntza arloak aktiboki irakurtzea	2 ordu norbere kabuz
1, 3 eta 4	- Aurrez aurreko saioa: adostasun ariketa eta bateratze lana	Aurrez aurreko 5 ordu

## Ebaluazioa

Ikastaroa gainditzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- Dokumentazioa irakurtzea eta autoebaluazio testa gainditzea (erantzunen % 80 zuzenak)
- Prestakuntza saio bietara joatea (on line saiora eta aurrez aurrekoa)
- Banakako analisia esandako epean eta eran egitea
- Aurrez aurreko saioko ariketak egitea

Gaitasuna	Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpideak	Azken notaren portzentajea
-----------	------------------	----------------------	----------------------------

1	Aurretiko autoebaluazio testa	Erantzunen % 80 zuzenak izatea	20
1 eta 2	Banakako analisisa	Dokumentazioa aztertzea eta indarguneak eta hobekuntza arloak zehaztea.	40
1 eta 3	Adostasun ariketa taldean	Aktiboki parte hartzea talde ariketan	40

## Datuak

### Iraupena

**Martxoaren 2tik 22ra:** 25 ordu.

7 aurrez aurrekoak (bi orduko on line saio bat eta bost orduko aurrez aurreko saio bat), eta gainerakoa, hamazortzi ordu, norbere kontura.

### Datak, ordutegiak eta tokia

On line saioaren aurreko lana: martxoaren 2tik 12ra EgelaPin.

- On line saioa: martxoaren 13an, 09:00etatik 11:00etara.

Webexeko esteka:

<https://ehu.webex.com/ehu/j.php?MTID=m454276c7019cd3240b60cc5e2f631946>

- Aurrez aurreko saioa: Martxoaren 22an, 09:00etatik 14:00etara

Lehen solairuko Batzar Aretoa, Bibliotekako eraikina, Leioa.

**Parte hartzaileen gehieneko kopurua:** 30

**Hizkuntza:** gaztelania

### Irakasleak

Begoña Blanco (KEIZeko zuzendaria)

KEIZeko teknikariak

**Izena emateko epea:** urtarrilaren 23tik otsailaren 10era (biak barne)

### Izena emateko baldintzak

IRlek eta AZPko langileek ikastegien kalitatea bermatzeko barne sistemak ezagutu beharko dituzte (AUDIT, MGA edo EFQM ereduak).

Izena emateko, [bete KEIZen web orriko formularioa](#). Plaza kopurua mugatua denez, goian aipatutako baldintza betetzeaz gain, izena emateko ordena ere hartuko da kontuan.

### Matrikula baliogabetzea

Ezin bazara etorri tailerrera, mesedez, esan lehenbailehen, zure plaza beste norbaiti eskaini ahal izateko. Horrela egin ezean, ezin izango duzu hurrengo deialdian parte hartu.